

MEXIKOKO TRENBIDE-GELTOKI BERRIEN HIRI- INGURUNEEN PLANGINTZA

Posted on 09/09/2026 by Naider

Villaldama, Lampazos de Naranjo, Anáhuac eta Nuevo Laredoko trenbide-geltoki berriak abian jartzeak lurraldean integratzeko plangintza eskatzen du, eta horretarako **Lurralde Antolamendu eta Lurzoru Kudeaketa Azterlanak** egiten ari dira, Nuevo León eta Tamaulipas estatu mexikarretan. Lanak, Mexikoko Gobernuaren [Secretaría de Desarrollo Agrario, Territorial y Urbano \(SEDATU\)](#) delakoak bultzatuta eta **Trenbide Programa Nazionalaren** esparruan, [Planeación, Desarrollo & Territorio \(CPDyT\)](#) enpresa mexikarraren talde teknikoak garatzen ditu, NAIDERen laguntzarekin.

Mugikortasun-nodo berrien iritsierak eraldaketa handiak eragin ditzake hiri- eta ekonomia-dinamiketan, lurzoruaren erabilera eta balioetan, hiri-hazkundearen ereduetan eta geltokien, biztanle-guneen eta beren lurralde-inguruaren arteko harremanetan. Azterlanek prozesu horiek aurreikusi eta trenbideak sortutako aukerak baliatzeko eta lurraldean duen eraginak antolatzeko plangintza-esparrua ezarri nahi dute.

Lanak nazioarteko eta nazio mailako jardunbide egokien azterketa uztartzen du **Garraiora Bideratutako Garapenaren (GBG)** inguruan, lurralde-ekonomiaren, lurzoruaren erabilera eta balioen azterketarekin, baita esparru arautzailearekin ere. Horren gainean, **etorkizun-eszenatokiak** eta lurralde-integrazio ereduak eraikitzen dira, geltoki berriekin lotutako eraldaketak aztertu eta etorkizuneko garapena bideratzeko.

Lurralde-diagnostikotik abiatuta, estrategiak, **proiektu-zorroak** eta esku-hartzeko tresnak zehazten dira, geltokiak dauden biztanlegune eta guneekin integratzea eta ingurune horien garapena bideratzea helburu dutenak. Halaber, **hiri-hazkundera kontrolatzeko** mekanismoak, **governantza**-ereduak eta **partaidetza-prozesuak** aztertzen dira, administrazioen, eragileen eta komunitateen esku-hartzea artikulatzeko.

Azterlanek, azkenik, **jarraipen eta ebaluazio** sistemak eta proposatutako estrategiak eta jarduerak ezartzeko **ibilbide-orria** ere jasotzen dituzte. Horrela, lurralde-plangintzak trenbide-azpiegitura berriaren garapenari lehen faseetatik laguntzen dio, geltokiak garraio-nodo hutsak izatetik harago, hiri, ekonomia eta lurralde-dinamika berriak egituratzeko gaitasuna duten elementu gisa ulertuta.

